Erabiltzaileen Gida

GANES v 4.1.0

AURKIBIDEA

1. Sarrera 5
1.1. Sarrera Emate Agiriei 5
1.2. Sarrera GANES aplikazioari 5
2. Sistemaren aurkezpena 6
2.1. Lan ingurunea 6
2.2. Erabiltzaileen profila 6
2.3. Sistemaren funtzionamendua 6
2.3.1. Emate Agirien Kudeaketa 6
2.3.2. Bezeroen kudeaketa 6
2.3.3. Aukerak 7
2.3.4. Laguntza 7
2.3.5. Harremanetan dauden sistemak 7
3. Sistemaren funtzionaltasunak 8
3.1. Emate Agirien erregistroa 8
3.1.1. Funtzionaltasunaren deskripzioa 8
3.1.2. Onartutako profilak 8
3.1.3. Interfazearen definizioa 8
3.1.4. Jarraibideak 11
3.1.5. Erroreen aurrean nola jardun 11
3.2. Emate Agirien kontsulta 11
3.2.1. Funtzionaltasunaren deskripzioa 11
3.2.2. Onartutako profilak 11
3.2.3. Interfazearen definizioa 12
3.2.4. Jarraibideak 12
3.2.5. Erroreen aurrean nola jardun 14
3.3. Emate Agirien esportazioa 14
3.3.1. Funtzionaltasunaren deskripzioa 14
3.3.2. Onartutako profilak 14
3.3.3. Interfazearen definizioa 15
3.3.4. Jarraibideak 16
3.3.5. Erroreen aurrean nola jardun 16
3.4. Emate Agirien inportazioa 16
3.4.1. Funtzionaltasunaren deskripzioa 16
3.4.2. Onartutako profilak 16
3.4.3. Interfazearen definizioa 17
3.4.4. Jarraibideak 17

3.4.5. Erroreen aurrean nola jardun 18
3.5. Bezeroen erregistroa 18
3.5.1. Funtzionaltasunaren deskripzioa 18
3.5.2. Onartutako profilak 18
3.5.3. Interfazearen definizioa 19
3.5.4. Jarraibideak 19
3.5.5. Erroreen aurrean nola jardun 19
3.6. Bezeroen kontsulta 20
3.6.1. Funtzionaltasunaren deskripzioa 20
3.6.2. Onartutako profilak 20
3.6.3. Interfazearen definizioa 20
3.6.4. Jarraibideak 21
3.6.5. Erroreen aurrean nola jardun 21
3.7. Aldaketak bezeroen datuetan 21
3.7.1. Funtzionaltasunaren deskripzioa 21
3.7.2. Onartutako profilak 21
3.7.3. Interfazearen definizioa 22
3.7.4. Jarraibideak 22
3.7.5. Erroreen aurrean nola jardun 23
3.8. Aukerak 23
3.8.1. Funtzionaltasunaren deskripzioa 23
3.8.2. Onartutako profilak 23
3.8.3. Jarraibideak 23
3.8.4. Erroreen aurrean nola jardun 23
3.9. Laguntza 23
3.9.1. Funtzionaltasunaren deskripzioa 23
3.9.2. Onartutako profilak 23
3.9.3. Interfazearen definizioa 24
3.9.4. Jarraibideak 24
3.9.5. Erroreen aurrean nola jardun 24
4. I. eranskina: Hitz eta Akronimoen glosategia 25
5. II. eranskina: Sistemaren faq-ak 26
5.1. Emate Agirien erregistroa 26
5.2. Emate Agirien kontsulta 26
5.3. Aldaketak Emate Agirietan 26
5.4. Emate Agirien esportazioa 26
5.5. Emate Agirien inportazioa 27
5.6. Bertsioen eguneratzeak 27

6. III. eranskina: Esportazio eta inportazio fitxategien formatua 28
6.1. TXT egitura 28
6.2. XML egitura..... 29
6.3. Etiketen esanahia..... 31
6.4. Datuen kodifikazioa 32
6.4.1. Frankeo mota..... 32
6.4.2. Jomuga 33
6.4.3. Produktua 33
6.4.4. Modalitatea 34
6.4.5. Pisu-tartea 34
6.4.6. Esparrua 34
6.4.7. Sailkatze maila..... 39
6.4.8. Balio erantsia 39
6.4.9. Tarte bidalketak publicorreo plus..... 39
6.4.10. DATA 39
6.5. Adibideak 39
6.5.1. 1. Adibidea..... 39
6.5.2. 2. adibidea 40
6.5.3. 3. Adibidea..... 41

1. Sarrera

Dokumentu hau Emate Agirien tokiko kudeaketarako GANES aplikazioaren erreferentzia gida da. Bertara jasotzen dira programaren ezaugarri nagusiak, eta garatutako funtzionaltasun nagusiak aztertzen dira.

Gida hau beren Emate Agiriak euren ekipoetatik eta offline eran sortzeko GANES aplikazioa erabili nahi duten eta agiriak era eraginkor batez kudeatzeko aplikazio horren funtzionaltasunak baliatu nahi dituzten bezeroei zuzendua dago.

1.1. Sarrera Emate Agiriei

Emate Agiriak Harrera Bulegoetan eta Harrera Masiboen Unitateetan igorpenen emateekin batera aurkezten diren dokumentuak dira.

Agiri bakoitza kontratu-bezero jakin bati eta produktu zehatz bati estu lotuta dago, eta beraz, agiri batera ezin bil daitezke produktu, bezero edo kontratu ezberdinei dagozkien igorpenei buruzko informazioak. Honenbestez, Emate Agiriek aukera ematen dute dokumentu bakar batera jasotzeko igorpen sorta baten informazio osoa, behar bezala antolatua.

1.2. Sarrera GANES aplikazioari

GANES tokiko aplikazio bat da, Emate Agirien offline kudeaketa egiteko modua eskaintzen duena. Hona hemen aplikazioaren funtzionaltasun nagusiak:

- **Emate Agirien erregistroa**: Correosen harrera zentroetan onartzen diren Emate Agiriak sortzen eta erregistratzen ditu.
- **Emate Agirien inportazioa eta esportazioa**: Aplikazioaren araberako Emate Agiriak kokatzeko eta biltegiratzeko kudeaketa bideratzen du.
- **Emate Agirien kontsulta**: Sisteman eta aplikazio honen bidez erregistraturiko Emate Agiriak bilatzen eta aurkitzen ditu.
- **Dokumentuen inprimaketa**: Agiri Emateak dokumentuen informazioa kodifikatzen duen puntu-hodei atxiki batekin aurkezten ditu.
- **Bezeroen sorrera**: Sistemaren baitan bezeroak sortzen ditu Emate Agirien erregistroan erabiltzeko.
- **Bezeroen kontsulta**: Bezeroak biltzen ditu GANES aplikazioan euren datuak aldatzeko, kentzeko eta erabiltzeko.

Funtzionaltasun hauen bidez, aplikazio hau erabiltzen dutenek Correosen harrera zentroetako sistemekin bateragarriak diren Emate Agirien sorrerari buruzko datu eta informazio guztiak bertan eta era zentralizatu batez kudeatu ahal izango dituzte.

2. Sistemaren aurkezpena

2.1. Lan ingurunea

GANES erabili ahal izateko honako baldintza hauek bete behar ditu bezeroaren ekipoak:

- Intel prozesadorea edo Pentium 166 MHz edo prozesadore bizkorragoarekin %100ean bateragarri dena.
- 256 MB RAM
- 10 MB-ko espazioa diskoan (JVM-k beste 98 MB behar ditu).
- Gainera, garatutako funtzionaltasunak erabat baliatu ahal izateko, honako tresna hauek egon behar dute instalaturik:
- Javaren Makina Birtuala, 1.5.0 bertsioarekin edo bertsio berriagoarekin. JAVA ingurunean garatutako aplikazioa denez gero, behar-beharrezkoa da lanerako ekipoak JVM instalaturik edukitzea.
- .zip formatuan iristen diren artxiboak deskonprimitzeko tresna.
- .pdf formatuan iristen diren artxiboak (esate baterako Acrobat Reader formatuan) erabili ahal izateko tresna. Tresnak formatu honetan inprimatzeko moduan sortzen ditu emate agiriak, eta beraz, mota honetako tresna bat behar da puntu hodeiez hornituriko Emate Agiriak inprimatu ahal izateko.

2.2. Erabiltzaileen profila

GANES aplikazioa instalaturik duen eta aplikazioaren araberako programak abiarazteko baimena duen ekipoan sarrera duen erabiltzaile orok izango du aplikazioa erabiltzeko askatasun osoa.

2.3. Sistemaren funtzionamendua

GANES aplikazioan garatutako funtzionaltasunek aukera ematen dute erabiltzailearen ekipoan Agiri Emateak era integralean kudeatzeko, eta aukera ematen dute, halaber, emate agiriak sortzeko eta datuak erregistratzeko beharrezkoak diren urrats guztiak egiteko, aipatutako agiriak inprimatzeko eta harrera zentroetan uzteko dokumentu baliagarriak lortzeko.

Honako kategoria hauetara biltzen dira sistemaren funtzionaltasun nagusiak:

2.3.1. Emate Agirien Kudeaketa

Aplikazioaren araberako Agiriak sortzeko, erregistratzeko eta erabiltzeko funtzionaltasunak biltzen ditu:

- **Erregistroa**: bezeroen emate agiri baliagarriak sortzen ditu harrera zentroetan aurkezteko.
- **Kontsulta**: sisteman erregistratutako emate agiriak aurkitzeko modua eskaintzen du.
- **Esportazioa**: erregistratutako agiriak fitxategietan gordetzen ditu erabiltzaileek datuak erabili ahal izan ditzaten aplikazioa abiarazi gabe.
- **Inportazioa**: fitxategietako agirien datuak eskaintzen ditu formatu egoki batean.

2.3.2. Bezeroen kudeaketa

Emate Agiriak GANES aplikazioarekin sortu dituen erabiltzailearen ohiko bezeroak kudeatzeko modua eskaintzen du.

- **Erregistroa**: bezeroak sortzen ditu emate agirien erregistroan erabili ahal izateko.
- **Kontsulta**: bezeroak bilatzeko, euren datuak ikusteko eta datuok aldatzeko modua eskaintzen du

2.3.3. Aukerak

Aplikazioaren interfazean hizkuntza bereizteko modua eskaintzen du.

2.3.4. Laguntza

Aplikazioaren arabera jarduteko laguntza gida eskaintzen du, eta erabilitako aplikazioaren bertsioa kontsultatzeko modua eskaintzen du.

2.3.5. Harremanetan dauden sistemak

GANES Correosen gainerako sistemetatik guztiz tresna independentea da, eta tokian erabiltzeko da. Nolanahi ere, produktu eta igorpenen ezaugarriei buruzko datuak harrera zentroetan onartutakoei estu lotuta daude, sortutako inprimakiak baliagarriak izan daitezen Correosen onartuak izateko.

GANES aplikazioaren erabiltzaileak emate agiriak sortu eta bakoitzetik kopia bi egin behar ditu, nork bere puntu hodeiarekin, gero harrera zentroetan aurkezteko. Aipatutako zentroetan egiaztatu egiten da Emate Agirietan jasotako informazioa haiei loturiko igorpen kargarekin bat datorrela.

Bukatzeko eta informazioa zuzena baldin bada, onartu egiten dira Emate Agiriak eta Correosen informazio sistemetan erregistratuta geratzen dira, eta agiri bakoitzari kode bat ematen zaio.



3. Sistemaren funtzionaltasunak

3.1. Emate Agirien erregistroa

3.1.1. Funtzionaltasunaren deskripzioa

Funtzionaltasun honek aukera ematen dio erabiltzaileari Emate Agiri bat sortzeko beharrezkoak diren datu guztiak sar ditzan eta dokumentu inprimaki baliagarri bat egin dezan. Agiriaren informazioa puntu hodei baten bidez kodifikatzen da Correosen zentroetan harrera egiteko prozesuan informazioaren irakurketa erraztearren.

3.1.2. Onartutako profilak

GANES abiarazten duen edozein erabiltzailek du funtzionaltasun honetarako sarrera.

3.1.3. Interfazearen definizioa



GANES aplikazioan hainbat fasetan sortzen eta erregistratzen da Emate Agiri bat:

- **Bezeroaren datuak**

Emate agiriak bezero jakin bati lotuak ageri dira, eta bezero horri dagozkio aipatu agirietan adierazitako igorpenak. Era honetan identifikatzen da bezeroa:

- Kontratu zenbakia
- Bezero zenbakia

- Bezeroaren izena
    - IFK

Osagarri gisa, bezeroaren datuen artean irudia jar daiteke (.gif, .bmp edo .jpeg) zure sinadurarekin, sortzen den albaranean inprimatzeko. Fitxategia adierazten da sinatzeko ikonoan sakatuz.

GANES aplikazioaren erabiltzaileak informazio hori adierazi behar du lehenik. Datuak eskuz sar daitezke edo aplikazioan eskuragarri dauden bezeroetatik abiaturik, luparen bidezko bilaketa botoia sakatuz. Bilaketa hori bezeroaren informazioan sartutako edozein datutik abiatuta egiten da. Informaziorik sartzen ez baldin bada, aplikazioan eskuragarri dauden bezero guztiak bilatzen ditu. Bezero bat bereizteko bi aldiz egin behar da klik erregistro lerroaren gainean. Bezero bat bakarrik badago erregistratuta, zure datuak automatikoki kargatuko dira luparen gainean sakatzean

Aplikazioak ez du datu hauen baliotasuna egiaztatzen, eta Correosen dauden datuekin bat etortzen ez baldin badira, aurkeztutako emate agiria ezin izango da harrera zentroetan erregistratu lehendik aldaketak egiten ezean. Honenbestez, GANES aplikazioaren erabiltzailearen ardura da emate agiriak sortzeko unean bezeroaren datu baliozkoak adieraztea.

Sortutako albaranaren gordailua egingo den probintzia ere hautatu behar da.

Era berean, bezeroak erreferentzia bat ipini dezake bere agirian.

- **Produktuaren datuak**

Erregistroaren bigarren fase edo aldiak agiriaren sorrera eragin duen produktu motak eta bere ezaugarriak biltzen ditu. Informazio hau elkarren artean zerikusia duten eremuetara jasotzen dira, eta honako ordena honen arabera jaso behar dira:

- **Onarpen probintzia**: albaranak zein probintziatatik onartuko dituzten
- **Frankeo mota**: frankeo ordaindua, kontzertatua eta makina bidezkoa onartzen dira.
- **Produktua**: aukeratutako frankeo mota bakoitzeko eskura dauden produktu multzo bat dago.
- **Jomuga**: nazio barnekoa edo nazioartekoa
- **Modalitateak**: aukeratutako produktuaren arabera modalitate bat edo batzuk bereiz daitezke.

Gainera, aukeratutako frankeo motaren arabera, beste datu batzuk adierazi beharko dira, esate baterako, makinaren zenbakia edo erabilitako frankeoa.

Datu hauek guztiak emate agiriaren araberako igorpen multzoari aplikatzen zaizkio, eta ondorioz, erregistratu nahi den igorpenen bat ez badator aipatutako datuekin bat etortzen, emate agiri berri batera jasota geratu beharko du igorpen horrek.

GANES aplikazioak datu multzo hau balidatzen du, eta ondorioz, aplikazioak onartzen dituen konbinazioekin osatutako emate agiriak baizik ezin dira erregistratu.

- **Igorpenen datuak**

Produktua eta bere ezaugarriak adierazi ondoren, igorpenen datuak azaltzea baizik ez da geratzen emate agiria osatuta egon dadin. Xede horretan taula bat dago, eta honakoak adierazten dira lerro bakoitzean:

- Igorpenen kopurua
- Pisu-tartea
- Esparrua
- Sailkapena

- Balio erantsiak (horrelakorik baldin badu)

Publicorreo Plus produktua aukeratzearen kasuan:

- Bidalketa-tartea
- Bidalketa-kopurua
- Tarte sendoa
- Pisu bateratua
- DATATZEN DU
- Sailkapena

Lerro bakoitzean adierazitako igorketek, beraz, ezaugarri berberak dituzte. Emate agiriko datu guztiak adierazi eta gero, “Erregistratu” botoia sakatu eta oso-osorik agertzen da agiria, datu guztiekin.

“Utzi” botoia sakaturik sartutako datu berri guztiak ezabatu egiten dira.



Erregistroa egitean barne kode bat ematen zaio emate agiriari aplikazioaren baitan berehala aurkitzeko xedean. Kode hau sekuentziatan emendatzen da emate agiriak sortu ahala.

Sortutako emate agirian aldaketak egin daitezke eta agiria ezabatu ere egin daiteke.

Era berean, inprimatu egin daiteke. Inprimatutako dokumentuan emate agiriaren datuak aurkezten dira barne kode multzo batekin, hauek produktu eta igorpenei lotuak, eta informazioa kodifikatzen duen puntu hodei bat azaltzen da. Nolanahi ere, Correosen ez dago agiri kode baliagarri bakar bat ere sortutako Emate Agiriari lotua denik. Lotura hori agiria onartu ondoren sortzen da.

Erregistro-pantailaren berezko datuez gain sortutako albaranak dituen igorpen kopuru osoa erakusten da

3.1.4. Jarraibideak

Emate agiriko datuak aurreko paragrafoan adierazitako ordenaren arabera sartu behar dira. Hondo ilunagoa duten eremuak nahitaez bete behar dira. Nolanahi ere, erregistratu baino lehen aplikazioak onartu egiten ditu sartutako datuak eta nahitaez bete beharreko eremuak zein diren adierazten du.

Datu guztiak adierazi eta gero, “Erregistratu” botoia sakatu behar da emate agiria GANES aplikazioan gordetzeko. Orduan aurkezten da Emate Agiria xehe-xehe.

- Nahi edo behar bezain bestetan aldatu daiteke emate agiria, “Aldatu” botoia sakaturik.
- Emate agiria eta kopia inprimatu ahal izateko, “inprimatu” botoia sakatu behar da, eta nahi bezain bestetan inprimatu daiteke agiri bera,
- Agiria sistematik borratzeko, aski da “Ezabatu” sakatzea.
- Emate agiri berri bat sortzeko erregistratutako emate agiriaren datuetatik abiaturik, “Kopiatu” botoia sakatu behar da.

3.1.5. Erroreen aurrean nola jardun

Albaranak eregistratzeko gehienezko kopurua. Muga hori gainditzen bada erregistroaren eta kontsultaren funtzionaliteateak desgaituko dira. Albaranak erregistratzen jarraitzeko, erabiltzaileak aplikazioan dauden albaranetako bat ezabatu behar du, "kendu" edo "esportatu" aukeren bidez.

Behar bestetan egin daitezke aldaketak emate agirian. Igorpen lerroren bat ezabatu nahi baduzu, nahikoa da “igorpenen kopurua” eremua deuseztatzea.

Emate agiri batean aldaketak egiteak ez du esan nahi emate agiri berri bat sortu denik; hortaz, aldatutako emate agiriak barne kode berari eusten dio.

Utzi botoia sakatuz gero, bertan behera geratzen dira emate agiria azken aldiz gorde zenetik egindako aldaketa guztiak.

3.2. Emate Agirien kontsulta

3.2.1. Funtzionaltasunaren deskripzioa

Emate Agirien kontsultak aukera ematen du GANES aplikazioaren bidez erregistratutako Emate Agiriak aurkitzeko, xehetasunetan sarrera izateko eta aplikazioaren mendeko emate agiriei loturiko beste funtzionaltasunak erabiltzeko.

3.2.2. Onartutako profilak

GANES abiarazten duen edozein erabiltzailek du funtzionaltasun honetarako sarrera.

3.2.3. Interfazearen definizioa



Kontsultak egiteko interfazeak aplikazioan Emate Agiriak bilatzeko irizpide gisa erabiltzen diren informazio eremu batzuk dauzka:

- Kontratuaren zenb.
- Bezero zenb.
- Agiriaren kodea
- Erreferentzia
- Onarpen probintzia
- Sortutako eguna
- Frankeo mota
- Produktua

"Bilatu" botoia sakaturik zehaztutako irizpideekin bat datozen agirien zerrenda azaltzen da. Lupa itxurako xehetasun botoia sakaturik agiriaren xehetasunetarako sarrera errazten da informazio guztia ikusi ahal izateko.

Xehetasun eremutik lehen adierazitako funtzionaltasun guztietara egin daiteke, aldaketak egiteko, inprimatzeko edo borratzeko, edo kontsultara egin daiteke ostera.

Gainera, lortutako zerrendako albaranak aukera daitezke (formatu xehatuan) esportatzeko, inprimatzeko edo ezabatzeko, "Esportatu", "Inprimatu" eta "Ezabatu" botoien bidez:

3.2.4. Jarraibideak

- Kontsulta bat egiteko bilaketarako irizpideak sartu eta "Bilatu" botoia sakatu behar da.

- Kontsultatutako albaranak esportatzeko, kontsultaren ondoriozkoen artean esportatu nahi diren albaranak onartzeko laukitxoa markatu eta "Esportatu" sakatu behar da. Jarraian, leiho bat agertuko da, eta bertan aukeratuko da ibilbidea, esportatu beharreko fitxategia gordetzeko, izen bat emanda,



- Kontsultatutako albaranak ezabatzeko, kontsultaren ondoriozkoen artean ezabatu nahi diren albaranak onartzeko laukitxoa markatu eta "Ezabatu" sakatu behar da. Jarraian, baieztapen leiho bat agertuko da, eta bertan baieztatu edo ezeztatu egin ahal izango da prozesua.

- Kontsultatutako albaranak inprimatzeko, kontsultaren ondoriozkoen artean inprimatu nahi diren albaranak onartzeko laukitxoa markatu eta "Inprimatu" sakatu behar da. Inprimatzeko 50 albaran baino gehiago aukeratuz gero, baieztapen leiho bat agertuko da, eta bertan baieztatu edo ezeztatu egin ahal izango da prozesua. Ekipoaren prozesu abiaduraren arabera, eragiketa honek minutu batzuk iraun ditzake.



- Agiri baten **xehetasunetan** sarrera izateko lupa botoia sakatu behar da, emaitzen taularen ilara bakoitzaren ezker aldean. Xehetasunen pantaila honetan agirian aldaketak egin daitezke, agiria ezabatu edo inprimatu daiteke, beti ere xede horietarako egokituriko botoia sakatuz.

3.2.5. Erroreen aurrean nola jardun

Burura eramandako kontsulta ez bada erabiltzailearen beharretara egokitzen, bilaketarako irizpide berriak azaldu eta “Bilatu” botoia sakatu behar da.

3.3. Emate Agirien esportazioa

3.3.1. Funtzionaltasunaren deskripzioa

Emate Agirien esportazioak aukera ematen du erabiltzaileak prestaturiko agirien datuak aplikaziotik kanpoko fitxategi baten gordetzeko. Fitxategi hau emate agirien segurtasun kopia gisa erabil daiteke, edo erabiltzailearen beste tresna batzuekin landu daiteke.

Esportaturiko emate agirien datuak dauzkaten etiketa multzo bat du fitxategiak.

Aukeratzen den esportazio mota zein den, fitxategian kopia egin eta gero, aukeratutako emate agiriak sisteman mantenduko dira, edo ezabatuko dira

3.3.2. Onartutako profilak

GANES abiarazten duen edozein erabiltzailek du funtzionaltasun honetarako sarrera.

3.3.3. Interfazearen definizioa

Esportaziorako interfazeak aukera ematen du esportaturiko datuen formatua adierazteko, eta esportatu beharreko emate agiriak zehazten dituzten irizpideak emateko.

- **Fitxategi mota**

Datuak esportatzen diren fitxategi mota izan daiteke XML edo testu laua (.txt), eta bere informazio eremuak tabulazioekin bereiztuko dira.



- **Formatua**

Bi aukera daude, eta bakoitzak esportatu beharreko emate agirien datuen multzoa zehazten du:

- Laburtua:
  - Kontratu zenb.
  - Bezero zenb.
  - IFK
  - Produktuaren kodea
  - Frankeo kodea
  - Albaranaren prezioa
- Zehaztua: emate agirien datu guztiak jasotzen ditu.

- **Bilatzeko irizpideak**

Esportatu beharreko emate agiriak zeintzuk diren adierazteko, bilaketarako honako irizpide hauek baliatu daitezke:

- Erregistro eguna
- Produktua
- Bezero zenbakia
- Onarpen probintzia

Aurkitutako emate agirien zerrenda da bilaketaren emaitza

Erabiltzaileak esportatu nahi dituenak bereizi ahal izango ditu onartu ikurra erabiliz eta "Esportatu" edo "Historikoa" botoia sakatuz; orduan adierazi behar da fitxategiaren izena, beraren luzapena eta non gorde nahi den.

- "Esportatu" sakatzen bada, bakarrik gordeko da esportazio fitxategia
- "Historikoa" sakatzen bada, fitxategia sortu eta aukeratutako emate agiriak aplikaziotik kenduko dira
- "Utzi" sakatzen bada, pantaila garbi geratuko da.

3.3.4. Jarraibideak

- Funtzionaltasun hau baliatu ahal izateko, esportaziorako formatu mota bereizi behar du erabiltzaileak, emate agiriak bilatzeko irizpideak zehaztu behar ditu ondoren eta "Bilatu" botoia sakatu ondoren, interesatzen zaizkionak bereizi behar ditu (nahiz eta berez guztiak aurkezten diren bereizirik).
- Bukatzeko, "Esportatu" edo "Historikoa" botoia sakatzean fitxategia, kokalekua eta beraren luzapena adierazi behar dira.

3.3.5. Erroreen aurrean nola jardun

Esportatzeko adierazitako daturen bat egokia ez baldin bada, beste bilaketa bat egin daiteke edo "Utzi" botoia sakatu daiteke berriro ere prozesuari hasieratik ekiteko.

Behar ez zen fitxategi bat esportatu baldin bada, erabiltzailearen ekipoko beste edozein fitxategi baten modura ezabatu daiteke. Gainera, fitxategia testu prozesadore batez edo kalkulu orri baten bidez zuzenean irekitzen eta bertako datuak erabiltzen ahal dira.

Fitxategi baten kokalekua edo izena aldatu nahi baldin bada, erabiltzailearen beste edozein fitxategirekin ohikoak diren urrats berberak egin behar dira, hori bai, erabiltzailearen sistema operatiboak eskaintzen dituen tresnak baliatuz.

3.4. Emate Agirien inportazioa

3.4.1. Funtzionaltasunaren deskripzioa

Funtzionaltasun honek aukera ematen du Emate Agiriak zuzenean GANES aplikaziora jasotzeko.

Funtzionaltasun honek aldez aurretik GANES aplikazioaren bidez esportaturiko emate agiriak berreskuratzea du xede nagusi, eta beharreko eremuez hornituriko formatuaren araberako fitxategi bat sortuz gero, esate baterako esportaziorako fitxategietan sortzen direnen modukoa sortuz gero, aplikazioak interpretatzen jakingo du.

3.4.2. Onartutako profilak

GANES abiarazten duen edozein erabiltzailek du funtzionaltasun honetarako sarrera.

3.4.3. Interfazearen definizioa

Garatutako interfazeak aukera ematen du inportatu nahi den fitxategia adierazteko..

"Arakatu" botoia sakaturik leiho bat zabaltzen da eta bertan adierazi behar da inportatu nahi diren emate agiriak biltzen dituen artxiboa.

"Kargatu" botoia sakatzean inportatu daitekeen fitxategi horretan dauden emate agirien zerrenda azaltzen da.

"Inportatu" botoia sakatuz fitxategiko emate agiriak aplikaziora biltzen dira.

"Utzi" botoia sakatuta garbitu egiten da pantaila.

3.4.4. Jarraibideak

Honako urrats hauek egin behar dira emate agiriak inportatzeko:

- "Arakatu" botoia sakatu eta inportatu nahi den fitxategia bereizi behar da.
- "Kargatu" botoia sakatu aplikazioak fitxategira biltzen diren emate agiriei dagozkien datuak irakurri ditzan.
- Eskura daudenen artean inportatu nahi diren emate agiriak bereizi (nahiz eta berez guztiak aurkezten diren bereizirik).
- "Inportatu" botoia sakatu bereiziriko emate agiriak berreskuratzeko.
- Inportazioa egin nahi ez baldin bada, "Utzi" botoia sakatu behar da.

3.4.5. Erroreen aurrean nola jardun

Aukera ezin da erabili aplikazioan erregistratutako albaranen gehienezko kopurura heldu bada

Aukera desgaituta egongo da aplikazioan erregistratutako emate agirien gehienezko kopurura heldu bada.

Behar ez zen fitxategia bereizi baldin bada, berriro ere “Arakatu” botoia sakatu daiteke fitxategi egokia aukeratzeko.

Bakarrik inportatu daitezke testu lauko fitxategiak edo XML fitxategiak, GANESek ezartzen duen formatuarekin eta informazio aginduarekin.

Formatu laburrean esportatzeko funtzionaltasunarekin sortutako fitxategi batetik ezin dira emate agiriak inportatu.

Behar ez zen emate agiri bat inportatu eta hura ezabatu egin nahi baldin bada. kontsultaren funtzionaltasunaren bidez iritsi behar da harengana, eta handik eta GANES aplikazioaren bidez ezabatu egin behar da.

3.5. Bezeroen erregistroa

3.5.1. Funtzionaltasunaren deskripzioa

Bezeroen erregistroak aukera ematen du GANES aplikazioan bezeroak sortzeko. Hauek zuzenean kargatu daitezke aplikazioan Emate Agiriak sortzeko eta erregistratzeko prozesuan zehar adierazitako datu guztiekin.

3.5.2. Onartutako profilak

GANES abiarazten duen edozein erabiltzailek du funtzionaltasun honetarako sarrera.

3.5.3. Interfazearen definizioa

Bezeroak sortzeko interfazeak bezeroei buruzko datuak baizik ez ditu biltzen, eta datu hauek Emate Agiriak sortzeko erabiltzen dira:

- Kontratu zenbakia
- Bezero zenbakia
- Bezeroaren izena
- IFK
- Sinadura
- Marinaren zk.
- Onarpen probintzia

3.5.4. Jarraibideak

- Bezero bat sortzeko informazio eremuak bete eta “Erregistratu” botoia sakatu behar da. Bezeroen zenbakiak hamar karaktere alfanumerikoz daude osatuta (CT + 8 digitu; edo 99 + 8 digitu). Sinadura erantsi nahi baduzu, sinadura duen fitxategiaren bidea adierazi behar da, dagokion ikonoan sakatuz
- Bezero baten sorrera bertan behera uzteko eta pantaila garbitzeko, “Utzi” botoia sakatu behar da

3.5.5. Erroreen aurrean nola jardun

Behar ez den datu bat sartzen baldin bada, aldatu edo geroago bezeroak kontsultatzeko pantailan ezabatu daiteke, aldatu nahi den bezeroaren xehetasunetan barna.

3.6. Bezeroen kontsulta

3.6.1. Funtzionaltasunaren deskripzioa

Bezeroen kontsultak aukera ematen du GANES aplikazioan erregistraturiko bezeroengana iristeko, euren xehetasunak irakurtzeko eta, hala behar badu, datuak kudeatzen edo aldatzen hasteko.

3.6.2. Onartutako profilak

GANES abiarazten duen edozein erabiltzailek du funtzionaltasun honetarako sarrera.

3.6.3. Interfazearen definizioa



Bezeroak kontsultatzeko interfazeak bezero hauei buruzko datuak erabiltzen ditu bilaketarako irizpide gisa:

- Kontratu zenbakia
- Bezero zenbakia
- Bezeroaren izena
- IFK
- Sinadura
- Marinaren zk.
- Onarpen probintzia

"Bilatu" botoia sakatuta, zehaztutako bilaketarako irizpideei egokituriko bezeroen zerrenda aurkezten da. Aurkeztutako bezeroak bereiz daitezke "Ezabatu" botoia sakaturik borratzeko.

Bestalde, bezeroen emate agiri bakoitzaren ezkerraldean lupa itxurako botoi bat dago, eta horrek **xehetasunetara** iristeko aukera ematen du.

3.6.4. Jarraibideak

- bezeroen kontsulta egiteko bilaketarako irizpideak adierazi eta “Bilatu” botoia sakatu behar da.
- Bezero baten **xehetasunetan** sarrera izateko, lupa itxurako botoia sakatu behar da ezker aldean.
- Bezeroak borratzeko, kendu nahi diren bezeroak bereizi eta “Ezabatu” botoia sakatu behar da.
- Beste kontsulta bat egin nahi bada, irizpide berriak adieraz daitezke. “Utzi” botoia sakaturik garbitu egiten da pantaila osoa.

3.6.5. Erroreen aurrean nola jardun

Egindako kontsultak ez badio erabiltzailearen beharrari erantzun, bilaketarako beste irizpide batzuk adierazi eta “Bilatu” botoia sakatu behar da.

3.7. Aldaketak bezeroen datuetan

3.7.1. Funtzionaltasunaren deskripzioa

Bezeroen datuetan aldaketak egiteko aukera jasotako dago GANES aplikazioaren baitan. Funtzionaltasun honetarako sarrera bezeroak kontsultatzeko pantailan dago.

3.7.2. Onartutako profilak

GANES abiarazten duen edozein erabiltzailek du funtzionaltasun honetarako sarrera.

3.7.3. Interfazearen definizioa



Bezeroen datuetan aldaketak egiteko interfazea bezeroen xehetasunen pantailan ageri da, eta honako eremu hauek aurkezten ditu:

- Kontratu zenbakia
- Bezero zenbakia
- Bezeroaren izena
- IFK
- Sinadura
- Marinaren zk.
- Onarpen probintzia

Eremu hauetan aldaketak egin daitezke. “Gorde” botoia sakaturik datuak gorde egiten dira.

Era berean, propio gaitutako botoiak baliaturik, bezero jakin bati dagokio emate agiria ezabatu eta beste bat sor daiteke, edo kontsultarako pantailara itzul daiteke.

3.7.4. Jarraibideak

- Bezeroak kontsultatzeko pantailan aldaketak behar dituen bezeroa aurkitu behar da eta lupa itxurako botoia sakatuz bezero horren xehetasunetara iritsi behar da.
- Bezeroaren datuak aldatzeko xehetasunen pantailan aurkezten den informazioa berritu behar da. Bezeroaren izena aldatzen baldin bada, beste fitxategi bat sortuko da GANES aplikazioan, bestela aukeratutakoan aldaketak baizik ez dira jasoko.
